



**2022KO EKAINAREN 20KO  
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko ekainaren hogeian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

**I.- AURREKO AKTA.-**

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkeztu da 2022ko ekainaren 6an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

**II.- FAKTURAK.-**

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 30 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMALAU MILA EHUN ETA LAUROGEITA HIRU euro ETA BERROGEITA HAMAHIRU zentimo (34.183,53 €)takoa onartzea erabaki da.

**III.- GAS NATURALAREN HORNIDURAREN KONTRATAZIOAREN ESLEIPENA.-**

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, 40.5.b) artikuluan emandako eskumenekin bat etorritik, Gobernantzako foru diputatuak 2022ko maiatzaren 16a foru aginduaren bitartez, EDP CLIENTES S.A., I.F.Z.A74472911 enpresarekin "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez gas naturala kontratatzeako esparru akordioa" burutzea ebatzi zuen.

Lazkaoko Udalari dagokio, Foru Kontratazio Zentralak tramitatutako espedienteari atxikia dagoen erakundea den aldetik, eta hornidura interesatzen zaion neurrian, 2011ko otsailaren 22ko 3/2011 Foru Dekretuaren 6. artikulua araberak, esparru akordiotik eratorritako kontratua esleitzea, formalizatzea eta gastua baimentzea.

Behin esparru akordioa izenpetu ondoren, zerbitzu buruak 2022ko ekainaren 20an emandako txostenaren arabera, aipatu hornikuntzaren beharra dela eta, gas naturala hornitzeari buruzko kontratua Esparru Akordioa burutzea erabaki den enpresa berari esleitzea eta hala formalizatzea proposatu du.

Administrazio honek kontratatzea beharko duen hornidura zenbatetsiz, gutxi gorabehera, urteko 87.015,39 euroko gastua ateratzen da, BEZik gabe.

Hori dela eta, 2017ko azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 221. artikuluari jarraituz, bidezkoa da eratorritako kontratua EDP CLIENTES S.A., I.F.Z. A74472911 enpresari esleitzea, izenpetutako Esparru Akordioan ezarritako baldintzetan.

Ondorioz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

**LEHENENGO.-** EDP CLIENTES S.A., I.F.Z.A74472911, enpresari esleitzea, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez gas naturalaren hornidura kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria, esparru akordioa burutzea erabaki den baldintzetan.

**BIGARREN.-** Kontratua 2022ko uztailaren 1etik aurrera sartuko da indarrean.

**HIRUGARREN.-** EDP CLIENTES S.A., I.F.Z. A74472911 enpresaren alde baimentzea eta xedatzea, aurtengo ekitaldiari dagokion 22.947,03 gehi BEZ, euroko gastua, udal aurrekontuan, programa ezberdinetan, gasaren kontsumoen gastua jasotzen duten 1 221.04 kontusailen kargura.

#### IV.- FUTBOL ZELAIKO ARGITERIAREN BERRIKUNTZA KONTRATATZEA

Udal honen eskariz Ezketa S.L.P. enpresako Izaskun Larzabal Arzallus arkitektoak "Futbol zelaiko argiteria berritzea" proiektua idatzi du.

Proiektuaren xedea Futbol zelaiko argiteria berritzea burutzeko obrak gauzatzea da.

Proiektu honen aurrekontua EHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA euro ETA LAUROGEITA SEI zentimo (178.567,86 €)koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek proiektu honen kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Hau guztia horrela, eta gaia ogasun batzordean informatua izan delarik, gaia bozketan jarri da eta tokiko gobernu batzarrak, aho batez, honako akordioak hartu ditu:

1.- Ezketa S.L.P. enpresako Izaskun Larzabal Arzallus arkitektoak idatzitako "Futbol zelaiko argiteria berritzea" proiektua, EHUN ETA HIRUROGEITA HEMEZORTZI MILA euro ETA LAUROGEITA SEI zentimo (178.567,86 €) gehi BEZ aurrekontua duena onartzea.

2.- Aurreko puntuan onartutako proiektua lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

#### V.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzordetik egindako proposamenak ikusi ondoren Tokiko Gobernu batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

2022ko San Prudentzio festetan Lazkaoko eragile ezberdinek antolatutako emanaldien gastuei aurre egiteko, talde hauei dirulaguntza hauek ematea:

- Herriko txistulariak.-

Apirilaren 28an San Prudentzio egunean egindako emanaldien tartean egindako hamaiketakorako, 33,25 €.





LAZKAOKO  
UDALA

- Domarda Elkartea.- Apirilaren 29 eta maiatzaren 1ean antolatutako Sardina jana eta Ba-kailao lehiaketa aurrera eraman ahal izateko izan dituzten gastuen ordainketa 3.759,11 €

- Oin Arin dantza taldea.-

    Apirilaren 28an Sokadantzan apurtutako alpargatak erosteko 109 €.

    Aurreko hiru dirulaguntza hauek aurrekontuko 480.03.338.00 partidatik ordainduko dira.

- Jundajo txaranga taldea.-

    Lazkao Txiki Musika Eskolak martxoan antolatutako aste kulturalean izandako partehartzeagatik 900 €.

    Dirulaguntza hau aurrekontuko 480.01.334.00 partidatik ordainduko dira.

- Lazkaomendiko jai batzordea.-

    San Prudentzio festen antolaketan izandako gastuengatik 4.368,16 € ematea. 2.000 € aurreratu zitzaiera kontuan izanda orain 2.368,16 € ordainduko zaie.

    Dirulaguntza hau aurrekontuko 480.03.338.00 partidatik ordainduko da.

- Suthai Batukada Elkartea.-

    2022ko ekainaren 11ko batukada ezberdinen topaketa antolatzeagatik izan dituzten gastuei aurre egiteko, Suthai batukada elkarteari 3.000 € ematea.

    Dirulaguntza hau aurrekontuko 480.01.334.00 partidatik ordainduko da.

- Gure esku dago Elkartea.-

    2022 urtean uztailean egingo duten pirinioetako bidearen mobilizazioa antolatzeagatik 1.000 € ematea.

    Dirulaguntza hau aurrekontuko 480.01.334.00 partidatik ordainduko da.

#### VI.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK .-

    Euskara batzordetik Tokiko Gobernu Batzarrera Mintzalagun Jarduerarako urteko dirulaguntzaren lehen zatia ordaintzeko proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabaki du Gerriko Kultur Elkarteari 5.050 €ko ordainketa onartzea.

    Dirulaguntza hau aurrekontuko 481.02.335.00 partidatik ordainduko da.

#### VII.- JARDUERA EKONOMIKOKO LAGUNTZAK.-

    Jarduera ekonomikoko batzordetik merkatariei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako hau erabaki du:

- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik be-



raien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatarietara hirugarren ordainketa egitea proposatzen da:

<b>Merkataria</b>	<b>Zenbatekoa</b>
GARIN ANAIAK OKINDEGIA	35 €
LIERNI FERNANDEZ (NARE)	245 €
JULEN IRURZUN IRAOLA (OREKA)	180 €
GERRIKO SL	500 €
XABIER BARANDIARAN (OSATU)	490 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	545 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	120 €
AINHOA GURRUTXAGA (ILEAP.)	895 €
PEDRO PEREIRO FARMAZIA	720 €
AMAIA GARRO Y OTROS CB (HIRUTXOKO)	105 €
OLATZ RISCO URSUA (IZAI PARAFARM.)	145 €
AGURTZANE DE MIGUEL.. (KOKKOR)	15 €
AINHOA OLARAN (FISIO ZENTRUA)	650 €
DAMASO LOPEZ (PELUQUERIA DAMA)	95 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	255 €
AMAIA SORAZU (EKILORE)	250 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	455 €
OIHANA VILLAREAL DOMARCO (NAHIKIRI)	150 €
AINITZE KORTA MENDIZABAL (MISZELANIA)	290 €
ARTANO ETA LORENA SL	1.690 €
IDOIA MATXINANDIAREN (A.BELEN)	670 €
ANA CRISTINA OLANO (ESTETIKA ZEN)	175 €
FONTANERIA GOMEZ SL	225 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	320 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	1.890 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	380 €
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>11.490 €</b>

Ordainketa hauengatik udalari dagokion gastua aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

- Lazkaoko Udala eta "Lazkaon" merkatarien elkartearen artean izenpetzeko 2022ko hitzarmena, bere espedientean dagoena, onartzea eta udalaren izanean izenpetzu dezan alkatea ahalmentzea. Hitzarmen honetan jasotzen da "Lazkaon" elkarteari Lazkaoko merkatariaren sustapenerako 5.400 € emango zaizkiola.

Dirulaguntza hau aurrekontuko 1 471.04.430.00 partidatik ordainduko da.

**LAZKAOKO  
UDALA**

VIII.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) osoko bilkura egite egunari dagokionean, uztaileko ohikoa 28an egitea dagokiola baina berak 21ean egitea proposatuko lukeela.

Alkateak erantzun dio aztertuko duela eskaera.



LAZKAOKO  
UDALA

Alkateak bi gairi buruzko informazioa eman du:

Alde batetik udaltzain agente plaza bat behingoz betetzeko egin asmo den prozesuaren nondik norakoaren berri eman du.

Beste alde batetik kalean utzitako animaliak jasotzearen inguruan dagoen arazoa eta planteatzen ari diren irtenbideei buruz.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak bost gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO  
UDALA